

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LEGAZPIKO UDALA

*Iragarkia*

Legazpiko Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak, joan den 201-06-27an egin zuen ohiko bileran, hasierako onespena eman zion «Etxez etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko arreta zerbitzua arautuko dituen udal Araudiari».

Jendearekiko informazio-epea amaiturik eta alegazioak aurkeztu ez direla ikusi ondoren, aipatu Araudia behin betiko onspena jaso duela ulertzen da, beraz argitaratzen da.

Legazpi, 2018ko irailaren 13a.—Koldobike Olabide Huelga, alkatea. (6235)

*Udal araudia. Etxez etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko arreta zerbitzua arautuko dituena.*

Aurkibidea.

Lehenengo titulua. Arrazoen azalpena.

1. artikulua. Xedea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

3. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren definizioa.

4. artikulua. Etxez etxeko zerbitzuaren helburuak.

Bigarren titulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

I. kapitulua. Zerbitzuko eta zerbitzuz kanpoko jarduerak. Aldaera eta ezaugarriak.

5. artikulua. Zerbitzuko eta zerbitzuz kanpoko jarduerak.

6. artikulua. Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua.

7. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak.

II. kapitulua. Erabiltzaileak.

8. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea.

9. artikulua. Sartzeko baldintza orokorrak.

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

11. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

III. kapitulua. Sartzeko prozedura.

12. artikulua. Eskatzaileen zerrenda.

13. artikulua. Zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea.

14. artikulua. Eskararekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

15. artikulua. Tramitazioa.

16. artikulua. Ebazpena.

17. artikulua. Premiazko egoerak.

18. artikulua. Zerbitzuan onartzea.

IV. kapitulua. Zerbitzua egokitzea eta zerbitzuaren segimendua.

19. artikulua. Segimendua eta ebaluazioa.

20. artikulua. Egokitzapen aldia.

## AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 27-06-2018 aprobó con carácter inicial el «Reglamento municipal regulador del servicio de ayuda a domicilio y del servicio de atención diurna».

Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, el citado Reglamento se entiende aprobado definitivamente por lo que se procede a su publicación.

Legazpi, a 13 de septiembre de 2018.—La alcaldesa, Koldobike Olabide Huelga. (6235)

*Reglamento municipal regulador del servicio de ayuda a domicilio y del servicio de atención diurna.*

Índice.

Título primero. Exposición de motivos.

Artículo 1. Objeto.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Artículo 3. Definición del Servicio de Ayuda a Domicilio.

Artículo 4. Objetivos del Servicio de Ayuda a Domicilio.

Título segundo. Servicio de ayuda a domicilio.

Capítulo I. Prestaciones incluidas y excluidas en el servicio, variante y características.

Artículo 5. Prestaciones incluidas y excluidas.

Artículo 6. Variante del Servicio: Servicio de respiro.

Artículo 7. Características del Servicio de Ayuda a Domicilio.

Capítulo II. De las personas usuarias.

Artículo 8. Determinación de las personas usuarias.

Artículo 9. Requisitos de acceso.

Artículo 10. Derechos de las personas usuarias.

Artículo 11. Obligaciones de las personas usuarias.

Capítulo III. Del procedimiento de acceso.

Artículo 12. Lista de demandantes.

Artículo 13. Solicitud de Acceso a la lista de demandantes del servicio.

Artículo 14. Documentación que se deberá adjuntar con la solicitud.

Artículo 15. Tramitación.

Artículo 16. Resolución.

Artículo 17. Situaciones Urgentes.

Artículo 18. La admisión al servicio.

Capítulo IV. Adaptación y seguimiento del servicio.

Artículo 19. Seguimiento y evaluación.

Artículo 20. Período de adaptación.



V. kapitulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.  
21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.  
VI. kapitulua. Zerbitzuaren erregimen ekonomikoa.  
22. artikulua. Prezio publikoa.  
23. artikulua. Finantziazioa.  
24. artikulua. Zerbitzuko erabiltzailearen ekarpena.  
Hirugarren titulua. Eguneko arreta zerbitzua.  
I. kapitulua. Alderdi orokorrak.  
25. artikulua. Definizioa.  
26. artikulua. Lortu nahi diren helburuak.  
27. artikulua. Metodologia.  
28. artikulua. Erabiltzaileen profila.  
II. kapitulua. Zerbitzuan Sartzea.  
29. artikulua. Irizpideak eta baremoa.  
30. artikulua. Onarpenak.  
31. artikulua. Egokitzapen aldia.  
32. artikulua. Bajak.  
33. artikulua. Ez egoteak.  
34. artikulua. Prezio publikoa.  
Lehenengo xedapen gehigarria.  
Bigarren xedapen gehigarria.  
Hirugarren xedapen gehigarria.  
Xedapen indargabetzailea.  
Amaierako lehen xedapena.  
Amaierako bigarren xedapena.  
I. eranskina. Sartzeko baremoa.  
II. eranskina. Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren baremoa.

LEHENENGO TITULUA

ARRAZOEN AZALPENA

1996ko Gizarte Zerbitzuen Legean ezarritako lege-markoaren arabera onartutako Etxez etxeko laguntza Zerbitzuaren egungo udal araudia, azkeneko urteotan eman diren lege-aldaketa garrantzitsuetara egokitu beharrean dago.

Horrela, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruz 2006ko abenduaren 14an onartu zen 39/2006 Legeak eta 2008ko abenduaren 5ean onartutako 12/2008 Legeak, nabarmen eragin dute gizarte zerbitzuen eremuan.

Zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan, eta horretarako:

Bere 22. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzen da. Horien artean Etxez etxeko laguntza zerbitzua dago eta Udalaren eskumena da zerbitzu hori ematea.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatu du. De-

Capítulo V. Suspensión y extinción del servicio.  
Artículo 21. Suspensión y extinción del servicio.  
Capítulo VI. Régimen económico del servicio.  
Artículo 22. Precio público / tasa.  
Artículo 23. Financiación.  
Artículo 24. Aportación de la persona usuaria del servicio.  
Título tercero. Servicio de atención diurna.  
Capítulo I. Aspectos generales.  
Artículo 25. Definición.  
Artículo 26. Objetivos que se persiguen.  
Artículo 27. Metodología.  
Artículo 28. Perfil de las personas usuarias.  
Capítulo II. Del acceso al servicio.  
Artículo 29. Criterios y baremo.  
Artículo 30. Admisiones.  
Artículo 31. Período de adaptación.  
Artículo 32. Bajas.  
Artículo 33. Ausencias.  
Artículo 34. Precio público / tasa.  
Disposición adicional primera.  
Disposición adicional segunda.  
Disposición adicional tercera.  
Disposición derogatoria.  
Disposición final primera.  
Disposición final segunda.  
Anexo I. Baremo de acceso.  
Anexo II. Baremo de aportación económica 32.

TÍTULO PRIMERO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El actual reglamento municipal del Servicio de Ayuda a Domicilio aprobado en base al marco legal establecido en la Ley de Servicios Sociales de 1996 requiere una adaptación a los importantes cambios legislativos que se han producido en los últimos años.

La aprobación tanto de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de Autonomía personal y Atención a las personas en situación de dependencia, como de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, han tenido una repercusión notable en el ámbito de los servicios sociales.

En concreto la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, ordena y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía de acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, dentro del marco de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulen para cada prestación o servicio, y para ello:

En su artículo 22 define el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, entre los que incluye el Servicio de Ayuda Domiciliaria, cuya provisión es potencialmente atribuida a los Ayuntamientos.

El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en desarrollo de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios



Dokumentu hau egiazkoa dela  
07E2000153CD00A5N14G7J1S3  
kodearekin egiazta daiteke  
ondorengo Entitatearen Egoitza  
Elektronikoan

**SINATZAILA - DATA**  
IÑAKI XABIER GASTAÑARES SANCHEZ(P2005500J-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Idazkaria -  
21/09/2018  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018  
08:18:49

**EXPEDIENTE ::**  
2018ORDE00002  
Data: 25/04/2018  
Ordua: 00:00  
Und. reg: REGISTRO  
GENERAL

EK/UV GAO-I-2018-06235



ketu horrek mugatu egiten du aipatu eskubide subjektiboa eta Gizarte Zerbitzuen Legean jasotzen den katalogoan ezarritako prestazioetara eta zerbitzuetara sartzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzen ditu.

Esandako aldaketa arauemaileez gain, errealitate sozialean ere bilakaera bat antzeman dezakegu: adinekoen hazkunde demografiko mailakakua, bizi-itxaropena areagotzearen ondorioz, eta adin-piramidearen aldaketa gure gizartean. Familia-harremantetan ere aldaketak izan dira, gizarte-zerbitzuen babes eta garrantzitsuen agente gisa. Haiek dira bizitza oso bat izateko beharrezkoak diren zerbitzuak definitzea sustatzen ari diren faktore garrantzitsuenetako bat, are gehiago mendetasun maila altua duten edo babes sozialik gabe dauden pertsonen kasuan. Faktore horiek eragin handia dute bizitza bete bat bermatzeko –baita besteen behar maila handia denean edo gizarte babesa falta denean ere– behar diren zerbitzuak zehazteko orduan.

Adineko pertsonak behin eta berriro adierazi dute ahalik eta denbora gehien egon nahi dutela beren etxean, beren bizialdi guztian izan duten gizarte sare erreferentziatzeko hori galdu gabe, eta, horrek, jakina, lehenetsuna du pertsona horiei beren mendekotasunak aurrera egin ahala eman behar zaizkien zerbitzuak aintzakotzat hartu eta zehazteko garaian. Baina badira beste alderdi asko ere (etxe ingurua, jokabideak, komunitatean diren laguntza zerbitzuak eta abar) nahitaez kontuan izan behar direnak, besteen beharra duen pertsonak bere bizimodua egiteko dituen aukerak mugatu edo baldintzatzen dituztenak.

Mendetasun-egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak arreta eskaintzeko beharrekina batera egoera sozial konplexuak sortzen ari dira eta badaude ahultasun egoeran dauden pertsonak edo familiak, oinarritzko arreta beharrei erantzuteko etxeko laguntza jaso beharrean daudenak.

Horrela, eguneroko bizitza eramangarriagoa izan dadin beste eta laguntzeko zerbitzuak eta elementuak izateaz gain, ezinbestekoa da mendetasun-egoeran dauden edo gizartean ahultasun egoeran dauden pertsonak euren etxeetan eta euren komunitatean laguntzeko zerbitzu bat izatea. Zerbitzu hori behar desberdinei erantzuteko gai eta denboran zatigarria izango da, larrialdiko esku hartzeak bere gain hartuko dituen eta zerbitzu behararen aldaketei bizkor erantzungo diona. Horren haritik, etxeko laguntzak garrantzi estrategikoa du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari bizikidetzatza pertsonalerako eta familia-bizikidetzarako laguntzak eskaintzeko, laguntza horiek ezinbestekoak direnean pertsona askoren bizi-kaliterako eta familia eta lana uztartzeko, bereziki emakumeen kasuan. Erabiltzaileek eta bere inguruko familiako kideek eta auzokoek oso ondo baloratzen duten zerbitzua da, pertsona askoren (adineko pertsonak, mendeko pertsonak, familia-zama handiak dituzten pertsonak) bizi-kalitatea bermatzen duena.

Ondorio horietarako Araudi honek, 2017an zehar Gipuzkoako Udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuen erakunde arteko mahaian adostu dituzten akordioak jasotzen ditu, besteen artean, honakoa alderdiei dagokienez: intentsitate malguagoak ezartzea, zerbitzua ia zera mugatuarekin eguneko egun guztietan eskaintzeko aukera ezartzea, zerbitzura urgentziaz sartzeko modalitatea finkatzea eta profil desberdinen sartzeko jasotzea.

Nolanahi ere, etxeko laguntza zerbitzuaren araudi honen ez da agortuko Administrazioak pertsonak kasu egiteko beste zerbitzu batzuk jartzeko biderik. Zerbitzu berriak pertsonak eta haien ezinbesteko beharrik egokitzeko bide berritzaileak izan daitezke, baldin eta zerbitzu horiek dagokion organo eskudunaren oniritzia baldin badute.

Beraz, honako udal araudiak etxeko laguntza zerbitzura sartzeko prozedura arautuko du. Horretarako, aurretik zerbitzura sartzeko eskatuko duten pertsonak baloratu egingo dira, zerbitzura sartzeko eskubidea duten aztertuko da eta arreta pertsonalizatua jasotzeko plan bat egingo da.

Sociales, delimita el derecho subjetivo mencionado, regulando las condiciones, criterios y procedimientos de acceso a las prestaciones y servicios establecidos en el catálogo de la Ley de Servicios Sociales.

Además de dichos cambios normativos, también se ha dado una evolución en la realidad social; el aumento demográfico progresivo de las personas mayores, debido al aumento en la esperanza de vida y a la modificación de la pirámide de edad en nuestra sociedad, además del cambio en las relaciones familiares como agentes de protección y del desarrollo de los servicios sociales. Son ellos algunos de los factores que están impulsando la definición de los servicios necesarios para garantizar una vida plena, aún más en niveles graves de dependencia y de falta de apoyo social.

La voluntad reiterada de las personas en permanecer el mayor tiempo posible en su propio domicilio, manteniendo la red social de referencia que ha tenido a lo largo de toda la vida, es algo prioritario en la consideración y determinación de los servicios de apoyo a estas personas en su progresiva dependencia. Pero el entorno domiciliario, sus accesos, los servicios de apoyo en la comunidad, etc. exigen la toma en cuestión de muchos aspectos que condicionan y determinan las posibilidades de la persona dependiente en el ejercicio de su desarrollo vital.

Junto a esa necesidad de dar atención a las personas en situación de dependencia o en riesgo de dependencia se están generando situaciones sociales complejas, y existen personas o familias en situación de debilidad o vulnerabilidad social, que precisan ayuda domiciliaria para poder responder a sus necesidades de atención básica.

Así, además de disponer de servicios o elementos de protección y asistencia para hacer la vida diaria más llevadera, es imprescindible tener un servicio para atender en su propio domicilio y en su propia comunidad a las personas en situación de dependencia o que estén en situación de debilidad y vulnerabilidad social, adaptable a las necesidades más variadas y fraccionable en tiempos, que asuma intervenciones de urgencia y que pueda responder ágilmente a las modificaciones de la necesidad del servicio. En este sentido, la ayuda a domicilio es un servicio que sigue teniendo una importancia estratégica en el Sistema Vasco de Servicios Sociales para proporcionar apoyos para la convivencia personal y familiar en un contexto en el que estos apoyos son imprescindibles para la calidad de vida de muchas personas y para la conciliación de la vida familiar y laboral, particularmente en el caso de las mujeres. Es un servicio muy valorado por las personas usuarias y por el resto de su entorno familiar y vecinal, que garantiza la calidad de vida de muchas personas (personas mayores, personas dependientes, personas con cargas familiares importantes).

A tales efectos este Reglamento recoge los acuerdos que, durante el año 2017, los Ayuntamientos del Gipuzkoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa han acordado en el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales, en aspectos como fijar intensidades más flexibles, establecer la posibilidad de ofrecer el servicio, con carácter limitado, durante todos los días del año, afianzar la modalidad de acceso urgente y recoger el acceso de perfiles diferentes.

La regulación del Servicio de Ayuda Domiciliaria no agota la posibilidad de que desde esta Administración puedan iniciarse otros servicios de asistencia personal, que supongan vías innovadoras de ajuste entre las personas y sus necesidades vitales, siempre y cuando estos otros servicios cuenten con el visto bueno del órgano competente correspondiente.

Por tanto, el presente reglamento municipal viene a regular el procedimiento de acceso de las personas al servicio municipal de ayuda domiciliaria, una vez que dichas personas han sido valoradas, les ha sido reconocido su derecho de acceso al servicio, y se ha elaborado un plan de atención personalizada.



Dokumentu hau egiazkoa dela  
07E2000153CD00A5N14G7J1S3  
kodearekin egiazta daiteke  
ondorengo Entitatearen Egoitza  
Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA	
IÑAKI XABIER GASTAÑARES SANCHEZ(P2005500J-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Idazkaria - 21/09/2018	
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018 08:18:49	

EXPEDIENTE :: 2018ORDE00002
Data: 25/04/2018
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

EK\CV GAO-I-2018-06235



**1. artikulua. Xedea.**

Araudi honen helburua da Legazpiko udalerrian etxe etxe laguntza zerbitzua arautzea.

**2. artikulua. Aplikazio-eremua.**

Araudi honetan arautzen den zerbitzua Legazpiko udalerrian emango da, Udalak gizarte zerbitzuetan dituen udal eskumenen baitan.

**3. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren definizioa.**

Etxez etxeko laguntza zerbitzua laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzu bat da, eta erabiltzaileari bere bizilekuan jarraitzen laguntzea, bizilekuan bertan moldatzeko eta ingurune komunitarioan integratzeko aukera emango dion etxeko arretarako eta arreta pertsonalerako laguntza bat eskaintzea eta, era horretan, isolamendu-egoerak saihestea du xede.

**4. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren helburuak.**

Hauek dira zerbitzuaren helburuak:

a) Autonomia galerari aurre hartzea, autonomiari eustea edo/eta autonomia galera konpentsatzea. Horretarako, laguntza partziala edo/eta erabatekoa emango da norberaren zaintzarako eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko edo/eta eguneroko bizitzako jardura instrumentaletarako.

b) Erabiltzaileen segurtasun-sentipena indartzea.

c) Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska lezaketan premia-egoerak detektatzea.

d) Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze eta/edo baztertzeko egoerak saihestea.

e) Egingarria den heinean, pertsonari bizilekuan bizi-kalitate onargarri batekin ahalik eta denbora gehien jarraitzeko aukera ematea, eta ostatu-zerbitzu edo egoitza-zentro batean sartzeko aukera atzeratzea edo saihestea.

f) Erabiltzailearen gizarte- eta familia-arloko laguntza-sarea osatzen duten zaintzaileei babesa eskaintzea eta arretaz ere partzialki liberatzen laguntzea, garapen pertsonal, profesional eta sozialerako baldintza egokiak izan ditzaten.

g) Erabiltzailea zaindu ohi duen zaintzaile nagusia aldizka ordeztea, hura aldi batean falta denean.

h) Adin txikikoen zaintza osatzea, haien gurasoek edo tutoreek zaintza hori modu egokian eman ezin diezaieketenean.

i) Faktore psiko-fisiko-sozial desberdinen ondorioz krisi egoeran dauden familien bizikidetzak giroa hobetzea eta egoera horrek sor ditzakeen arriskuei aurre hartzea.

**BIGARREN TITULUA**

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA**

**I. KAPITULUA. ZERBITZUKO ETA ZERBITZUZ KANPOKO JARDUERAK. ALDAERA ETA EZAUGARRIAK**

**5. artikulua. Zerbitzuko eta zerbitzuz kanpoko jarduerak.**

1) Informazioa: Erabiltzaileei aukera ematea, denboraz eta behar bezala, eskubideei eta zerbitzuari buruz ezaguera egokia eta nahikoa izan dezaten.

2) Jarraipenaren balorazioa: Arreta pertsonalizatuko plana aldiari ebaluatzea, sakontasun handiagoarekin ala txikiagoarekin.

3) Etxeko arreta: Prestazio bat da, eta, horren bitartez, erabiltzaileek laguntza partziala edo osoa jasotzen dute eguneroko

**Artículo 1. Objeto.**

El presente reglamento tiene por objeto regular la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio en el municipio de Legazpi.

**Artículo 2. Ámbito de aplicación.**

El servicio que se regula en este reglamento se desarrollará en el término municipal de Legazpi dentro del ámbito de las competencias municipales en materia de servicios sociales.

**Artículo 3. Definición del Servicio de Ayuda a Domicilio.**

El Servicio de Ayuda a Domicilio, es un servicio de naturaleza asistencial y preventiva destinado a ayudar a la persona usuaria a permanecer en su domicilio, ofreciéndoles una ayuda de atención doméstica y/o personal que posibilite su desenvolvimiento en el propio domicilio y su integración en el entorno comunitario, evitando situaciones de aislamiento.

**Artículo 4. Objetivos del Servicio de Ayuda a Domicilio.**

Serán objetivos de este Servicio:

a) Prevenir el deterioro, mantener y/o compensar la pérdida de autonomía y mejorar la misma. Prestando ayuda parcial y/o total para realizar actividades básicas de la vida diaria, necesarias para su cuidado personal, y/o actividades instrumentales de la vida diaria.

b) Fortalecer el sentimiento de seguridad de las personas usuarias.

c) Detectar situaciones de necesidad que pudieran requerir la intervención de otros servicios.

d) Favorecer la integración de las personas usuarias en su entorno comunitario evitando situaciones de aislamiento y/o exclusión.

e) Posibilitar, siempre que resulte viable, la permanencia de la persona en el domicilio el mayor tiempo posible, con una calidad de vida aceptable, retrasando o evitando el ingreso en un servicio de alojamiento o centro residencial.

f) Ofrecer apoyo a las personas cuidadoras que constituyen la red sociofamiliar de apoyo de la persona usuaria y contribuir a la liberación parcial de su tarea de atención, con el fin de que dispongan de condiciones adecuadas para su propio desarrollo personal, profesional y social.

g) Sustituir ocasionalmente a la persona cuidadora principal, que habitualmente atiende a la persona usuaria, en razón de la ausencia temporal de aquélla.

h) Complementar el cuidado de menores cuando sus progenitores o tutores no pueden proporcionarle el mismo de forma adecuada.

i) Mejorar el clima convivencial de familias en situación de crisis, causadas por diversos factores psico-físico-sociales y prevenir los riesgos derivados de los mismos.

**TÍTULO SEGUNDO**

**SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO**

**CAPÍTULO I. PRESTACIONES INCLUIDAS Y EXCLUIDAS EN EL SERVICIO, VARIANTE Y CARACTERÍSTICAS**

**Artículo 5. Prestaciones incluidas y excluidas.**

1) Información: posibilitar a las personas usuarias acceder en tiempo y forma al conocimiento adecuado y suficiente sobre los derechos y el servicio.

2) Valoración de seguimiento: realizar evaluaciones periódicas del Plan de Atención Personalizada, con mayor o menor profundidad.

3) Atención doméstica: Prestación en virtud de la cual las personas reciben ayuda, parcial o total, para realizar las activi-





bizitzako jarduera instrumentalak egiteko, eta bereziki elikatze-arekin, jantzearekin eta bizi den etxeko instalazioen mantentze-garbitzarekin zerikusia duten etxeko lanak egiteko, etxearen antolaketa erraztuz, eta, hala badagokio, lan horiek egiteko beharrezko trebetasunak eskuratzeko entrenamendua barne.

3.1) Elikadurarekin lotura dutenak:

– Janaria planifikatzen eta prestatzen laguntzea, erabilitako elementuak jaso eta garbitzen laguntzea barne.

– Janaria erostea.

– Erabilitako lanabesak garbitzea eta lehortzea.

3.2) Jantziekin lotura dutenak:

– Etxean arropa garbitzea.

– Arropa esekitzea, lehor dadin.

– Arropa pasaratzea.

– Arropa antolatzea eta gordetzea.

– Etxean arropa lisatzea eta tolestea.

– Arropa erostea.

– Erabilitako lanabesak prestatzea eta gordetzea.

3.3) Etxebizitzako instalazioak garbi mantentzearekin lotura dutenak:

– Etxean ordena mantentzea.

– Gainaldeak produktu egokiekin garbitzea.

– Erabilitako tresnak garbitzea eta jasotzea.

– Hautsa kentzea.

– Zoruak garbitzea eta xurgagailua pasatzea.

– Gortinak eta leihoak zabaltzea, aireztatzea.

– Komuna garbitzea.

– Sukaldea garbitzea.

– Leihoko kristalak garbitzea.

– Zaborra zaintzea eta ateratzea.

– Zerbitzua hasi aurreko garbiketa.

– Jabekideen komunitatearenak diren tokiak garbitzea.

– Ohea egitea, oheko arropa aldatzea eta arropa zikina erretiratzea.

4) Arreta pertsonala: prestazio bat da, eta, horren bitartez, pertsonak laguntza partziala edo osoa jasotzen dute honako jarduera hauek egiteko:

a) Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, erabiltzailearen zaintza pertsonalerako beharrezkoak direnak, eta bereziki, altxatzeko eta etzateko, bere burua garbitzeko, ibiltzeko, jateko edo oinarrizko beste eginkizun batzuetarako beharrezkoak direnak.

b) Ingurunearekin lotzeko jarduera instrumentalak, eta bereziki, komunikatzeko (telefonoz hitz egiteko edo gutun bat idazteko) eta familia eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak direnak. Era berean, hala badagokio, jarduera horiek egiteko beharrezko trebetasunei dagokien entrenamendua barnean hartuz.

4.a) Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, erabiltzailearen zaintza pertsonalerako beharrezkoak direnak, eta bereziki, altxatzeko eta etzateko, bere burua garbitzeko, ibiltzeko, jateko edo oinarrizko beste eginkizun batzuetarako beharrezkoak direnak.

4.a.1) Mugikortasuna eta ingurunean behar bezala moldatzea:

– Ohetik jaikitze, oheratzeko eta eserlektutik altxatzeko laguntzea, laguntza teknikoak erabiliz, baldin badaude.

– Etxean eta etxetik kanpo nora ezean ibiltzen laguntzea, laguntza teknikoak erabiliz, baldin badaude (komunera lagun-

dades instrumentales de la vida diaria, en particular las tareas relacionadas con la alimentación, el vestido y la limpieza de mantenimiento de las instalaciones de la vivienda donde se desarrolla su vida, facilitando su organización, incluyendo en su caso el entrenamiento en las habilidades necesarias para realizarlas.

3.1) Relacionadas con la alimentación:

– Planificación y preparación de comidas incluido limpieza y recogida de los elementos utilizados.

– Compra de alimentos.

– Limpieza y secado de los utensilios utilizados.

3.2) Relacionadas con el vestido:

– Lavado de ropa en el domicilio.

– Colgado de ropa para que se seque.

– Repaso de la ropa.

– Ordenación y guardado de la ropa.

– Planchado y doblado de ropa en el domicilio.

– Compra de ropa.

– Preparación y guardado de todos los elementos utilizados.

3.3) Relacionadas con la limpieza de mantenimiento de las instalaciones de la vivienda:

– Poner en orden la casa.

– Limpiar las superficies con los productos adecuados.

– Limpiar y recoger elementos utilizados.

– Quitar el polvo.

– Fregar suelos y pasar la aspiradora.

– Abrir cortinas y ventanas, airear.

– Limpiar cuarto de baño.

– Limpiar cocina.

– Limpiar los cristales de ventanas.

– Supervisar y bajar la basura.

– Limpieza de choque previa al inicio del servicio.

– Limpieza de espacios de la comunidad de propietarios/as.

– Hacer la cama y cambiar la ropa de cama y retirar la ropa sucia.

4) Atención personal: Prestación en virtud de la cual las personas usuarias reciben ayuda, parcial o total, para realizar:

a) Actividades básicas de la vida diaria necesarias para su cuidado personal, en particular, para levantarse y acostarse, asearse, desplazarse, comer u otras funciones básicas.

b) Actividades instrumentales que las vinculen con su entorno, en particular, para comunicarse (usar el teléfono o escribir una carta) y acceder al entorno familiar y comunitario. Igualmente, incluyendo, en su caso, el entrenamiento en las habilidades necesarias para realizarlas.

4.a) Actividades básicas de la vida diaria necesarias para su cuidado personal, en particular, para levantarse y acostarse, asearse, desplazarse, comer u otras funciones básicas.

4.a.1) Relacionadas con la movilidad y desenvolvimiento en el entorno:

– Ayuda para levantarse, acostarse e incorporarse del asiento utilizando las ayudas técnicas si las hubiera.

– Ayuda a la deambulación dentro y fuera del hogar utilizando las ayudas técnicas si las hubiera (acompañamiento al



tzea, gelen artean ibiltzea, ikastetxeetara joatea, garraioa hartzen laguntzea, eguneko zentrora joaten laguntzea, osasun-zentrora,).

4.a.2) Higiene pertsonala:

Garbiketa eta higiene pertsonala (barruan sartzen da: baldin badaude, laguntza teknikoak erabiltzea, azkazalak zaintzea, bizarra moztea, ilea garbitzea, azala hidratatzea, ahoa garbitzea eta oheko arropa aldatzea).

4.a.3) Jatea:

- Jaten laguntzea.
- Edaten laguntzea.
- Janaria berotzea.
- Erabilitako tresnak garbitzea eta jasotzea.

4.a.4) Jantziak:

- Janzten eta eranzten laguntzea.
- Eguneroko arropa prestatzea.

4.b) Ingurunearekin lotzeko jarduera instrumentalak, eta bereziki, komunikatzeko (telefonoz hitz egiteko edo gutun bat idazteko) eta familia eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak direnak.

Oro har, aurrez egin beharreko jarduera guztiak, horiek ekarriko duten elementuak eta/edo jarduerak prestatzea, aurreko lanen ondorio izango direnak.

Bereziki, edozein lan egiteko beharrezko abilezietan entrenatu beharra baldin badago.

4.b.1) Ingurune komunitarioan sartzearekin lotutakoak:

Haurtzaindegietara, ikastetxeetara, garraioa hartzea, eguneko zentrora, osasun-zentroa, ekipamendu komunitarioetara, joaten laguntzea.

4.b.2) Ingurunearekin komunikatzeko:

– Etxe barruan eskabideak betetzen laguntzea, gutunak jasotzea, gutunak eta bestelakoa azaltzea.

– Hainbat erakunderekin komunikatzen laguntzea: banketxeak, osasun-zentroak, bitartekoen tramitazioa, dokumentazioa eskatzea eta entregatzea,

4.b.3) Osasuna mantentzea:

– Medikuek aginduta, ahoz hartzeko botikak erostea, kontrolatzea eta botiken segimendua egitea.

– Medikuekin egoteko hitzorduak kontrolatzea eta jarripena egitea.

4.b.4) Zaintzari dagozkionak:

– Adin txikikoekin zerbitzuetan, ingurune komunitarioetan laguntzea eta adin txikikoa zaintzea eskatuko duten lan guztiak egitea.

5) Lagun egite soziala: gizarte-zerbitzuetako prestazioetan egiazkoena eta bereizgarriena da, eta horren bitartez pertsona profesional kalifikatu batekin harremanetan jartzen da, harekiko elkarreraginak lagundu egiten diona modu autonomoan moldatzen eta gizarteratzen.

Lagun egite sozialari esker erabiltzaileak bere egoera egiazta dezake, bere autonomia pertsonala eta gizarteratzea mantentzeari edo garatzeari dagokienez (gizarteratzeko lagun egitea) dituen helburuak azal ditzake; eta prozesuan zehar helburu horiek lortzen lagunduko dion erreferentziako pertsona bat eduki dezake eskura, honako hauen inguruko laguntza eta babesa eskainiko diona:

a) Instrumentala (informazioa, orientabidea eta bitartekaritza beste sistema batzuetako baliabide eta zerbitzuak eskuratzeko eta gizarte- eta familia-arloko laguntzarako –familia, lagunak, komunitatea– eta harremanetarako sareetara iristeko).

cuarto de baño, desplazamiento entre habitaciones, acudir a centros escolares, al transporte, a centros de día, centros de salud).

4.a.2) Relacionados con la higiene personal:

Aseo e higiene personal (incluye el uso de ayudas técnicas si las hubiera, el cuidado de uñas, afeitado, lavado de cabello, hidratación de la piel, higiene bucal y cambio de ropa).

4.a.3) Relacionadas con el comer:

- Ayuda para comer.
- Ayuda para beber.
- Calentar la comida.
- Limpiar y recoger los elementos utilizados.

4.a.4) Relacionadas con el vestido:

- Ayuda para vestirse y desvestirse.
- Preparación de la ropa diaria.

4.b) Actividades instrumentales que las vinculen con su entorno, en particular, para comunicarse (usar el teléfono o escribir una carta) y acceder al entorno familiar y comunitario.

En general todas aquellas actuaciones que sean actuaciones previas, preparación de elementos y/o actuaciones que se deriven, que sean consecuencia de las tareas anteriores.

En particular si procediese el entrenamiento en las habilidades necesarias para realizar cualquier tarea.

4.b.1) Relacionadas con el acceso al entorno comunitario:

Facilitar el acceso a guarderías, centros escolares, transporte, centros de día, centros de salud, equipamientos comunitarios, etc.).

4.b.2) Relacionadas con el acceso a la comunicación con el entorno:

– Apoyo dentro del hogar en la formalización de solicitudes, recogida de correspondencia, explicación de cartas y otros.

– Facilitar comunicación con (entidades bancarias, de salud, tramitación de recursos, solicitud y entrega de documentación, etc.).

4.b.3) Relacionados con el mantenimiento de la salud:

– Compra, control y seguimiento de la administración de la medicación oral, señalada por el o la médica.

– Control y seguimiento de las citas médicas.

4.b.4) Relacionados con la guarda:

– En servicios con menores, acompañamientos en el entorno comunitario y todas aquellas tareas que se requieran en el ejercicio de la guarda del o de la menor.

5) Acompañamiento social: prestación más genuina y característica de los servicios sociales, en virtud de la cual la persona participa, en interacción con una o un profesional cualificado, en una relación de ayuda que contribuye a mejorar su desenvolvimiento autónomo e integración social.

Permite a la persona usuaria contrastar su situación, explicar sus objetivos en relación con el mantenimiento o desarrollo de su autonomía personal y su integración social (acompañamiento para la inserción) y contar, para alcanzarlos, con una persona de referencia que, a lo largo de un proceso, sea capaz de ofrecerle apoyo:

a) Instrumental (información, orientación y mediación para el acceso a recursos y servicios de otros sistemas, así como a redes socio/familiares de apoyo –familia, amistades, comunidad– y relación).



Dokumentu hau egiazkoa dela  
07E2000153CD00A5N14G7J1S3  
kodearekin egiazta daiteke  
ondorengo Entitatearen Egoitza  
Elektronikoan

**SINATZAILA - DATA**  
IÑAKI XABIER GASTAÑARES SANCHEZ(P2005500J-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Idazkaria -  
21/09/2018  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018  
08:18:49

**EXPEDIENTE ::**  
2018ORDE00002  
Data: 25/04/2018  
Ordua: 00:00  
Und. reg: REGISTRO  
GENERAL

EK\CV GAO-I-2018-06235



b) Emozionala (kaltea murriztea, eustea, emozioei eustea eta krisi-egoeretan orientatzea, eta abar).

c) Hezkuntza-arlokoa (eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak, jarduera instrumentalak eta aurreratutako egiteko eta gizarteratzeko trebetasunak eskuratzea, jarrerak aldatzea eta abar).

d) Harremanetarako (entzute aktiboa, harreman sozial eta/edo pertsonalak mantentzeko edo ezartzeko trebetasunak eskuratzea, harremanak ezartzeko aukerak sortzea).

Neurri handiagoan edo txikiagoan ezarriko da, pertsonaren babes-premiaren arabera. Zenbait ibilbide ezar daitezke, erabiltzaileak poliki-poliki lagun egitearen intentsitatea alda dezan, eta, ahal dela, murriztuz.

6) Beste jarduera osagarri edo berezi batzuk:

– Garbiketa orokorrak higie arazo larriak dauden etxebizitzetan.

– Higie eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea, betiere Osasun Sailarekin lankidetzan arituta.

– Egoera berezietan, zerbitzuaren helburuak lortzeko nahitaezko zatitza jotzen diren beste ekintza batzuk egin daitezke, gizarter-laneko teknikaria hala proposatuko duenean eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak horretarako baimena emango duenean betiere.

7) Kanpo geratzen diren jarduketak: Etxez etxeko laguntza zerbitzutik kanpo geratuko dira ondoren zehaztutako jarduerak:

– Etxe berean bizi diren beste pertsona arreta pertsonala ematea, baldin eta udal zerbitzu teknikoaren balorazioaren arabera zerbitzuaren erabiltzaile ez badira.

– Etxean bizi diren eta onuradunak ez diren gainerako pertsona zuzenean mesede egiten dieten etxeko lanetan laguntza.

– Osasun arloko jarduerak, jarduera horiek egiteko behariazko prestakuntza behar bada (injekzioak ipintzea, intsulina edo heparina administratzea, tentsioa hartzea, zundak jarri eta kentzea, ultzerak eta eskarak tratatzea eta ezagutza espezializatutako eskatzen dituzten zenbait botika ematea).

– Etxean konponketa garrantzitsuak egitea: pintatzea,.

6. artikulua. Zerbitzuaren aldaera: Atsedenerako zerbitzua.

Zaintzaile nagusiak atsedean hartzeko zerbitzua, mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dagoen pertsona Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan sartuz aldi baterako edo zerbitzu honetan emandako intentsitatea aldi baterako areagotuz.

7. artikulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak.

Etxez etxeko zerbitzua, oro har, pertsona onuradunak lo egiten duen eta/edo eguna pasatzen duen tokian (ingurunean) prestatuko da, Legazpiko udalerrian bertan.

7.1) Arreta egunak.

Oro har, zerbitzua urteko egun guztietan eskaini ahal izango da, agindu teknikoaren arabera.

7.2) Zerbitzuaren intentsitatea.

Pertsona bakoitzaren beharren azterketa eginda ezarriko da zerbitzuaren iraupena. Zerbitzuaren gehieneko iraupena astearen hogeita zortzi ordukoa izango da. Dena dela, gehieneko ordukopuru hori malgutasunez banakatu ahal da, profesionalak pertsona etxean bertan mantentzea ahalbidetuko duten eta/edo erraztuko duten zaintzak osatzea eta/edo ordezkatzeko beharrezkoa dela baloratzen bada.

b) Emocional (reducción del daño, contención, soporte emocional y orientación en situaciones de crisis).

c) Educativo (adquisición de habilidades para realizar actividades básicas, instrumentales y avanzadas de la vida diaria y para la integración social, modificación de actitudes).

d) Relacional (escucha activa, adquisición de habilidades para mantener o establecer relaciones sociales y/o personales, generación de oportunidades para el establecimiento de relaciones).

Puede ser más o menos intenso en función de la necesidad de apoyo de la persona. Se entiende que cabe plantear itinerarios en los que la persona usuaria vaya variando (deseablemente reduciendo) la intensidad del acompañamiento requerido.

6) Otras actuaciones complementarias o excepcionales:

– Limpiezas generales en domicilios con graves problemas de higie.

– Vaciado y limpieza de domicilios con graves problemas de higie y salubridad en colaboración con la autoridad sanitaria.

– Atendiendo a circunstancias especiales podrán prestarse otras actuaciones que se consideren imprescindibles para lograr los objetivos del servicio siempre a propuesta de la persona técnica en trabajo social y que sean expresamente autorizadas por la Dirección de Servicios Sociales.

7) Actuaciones excluidas: Se consideran actuaciones excluidas del servicio de ayuda domiciliaria las siguientes:

– Atención personal a otras personas que habiten en el mismo domicilio y no se consideren personas beneficiarias del mismo por la valoración de los servicios técnicos municipales.

– Aquellas actuaciones de apoyo doméstico cuya realización favorezca directamente a las demás personas que habiten en el domicilio y no se consideren beneficiarios.

– Actuaciones de carácter sanitario, que precisen una formación específica del personal que lo realiza, como poner inyecciones, administrar insulina o heparina, tomar la tensión, colocar y quitar sondas, tratamientos de úlceras y escaras, suministros de medicación que impliquen conocimientos específicos o otros similares.

– Realización de arreglos importantes en el hogar: pintar, etc.

Artículo 6. Variante del Servicio: Servicio de respiro.

Servicio de respiro para la persona cuidadora principal mediante el acceso temporal de la persona en situación o riesgo de dependencia al SAD o el refuerzo temporal de la intensidad ya ofrecida en dicho servicio.

Artículo 7. Características del Servicio de Ayuda a Domicilio.

El servicio de ayuda domiciliaria se prestará con carácter general en el lugar(entorno) donde pernocta y/o pasa el día la persona beneficiaria, dentro del término municipal de Legazpi.

7.1) Días de atención.

Con carácter general, el servicio se podrá prestar durante todos los días del año en función de la prescripción técnica.

7.2) Intensidad del servicio.

Los límites temporales de prestación del Servicio se establecerán en función de la evaluación individualizada de las necesidades de las personas usuarias. La prestación máxima será de veintiocho horas a la semana. Este máximo podrá ser distribuido con mayor flexibilidad si a criterio profesional se valora como necesario para complementar y/o sustituir cuidados que favorezcan y/o permitan el mantenimiento de la persona en el domicilio.



Dokumentu hau egiazkoa dela  
07E2000153CD00A5N14G7J1S3  
kodearekin egiazta daiteke  
ondorengo Entitatearen Egoitza  
Elektronikoan

**SINATZAILA - DATA**  
IÑAKI XABIER GASTAÑARES SANCHEZ(P2005500J-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Idazkaria -  
21/09/2018  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018  
08:18:49

EXPEDIENTE ::  
2018ORDE00002  
Data: 25/04/2018  
Ordua: 00:00  
Und. reg: REGISTRO  
GENERAL

EK/CV GAO-I-2018-06235



15 minutukoa baino motzagoak ez diren zatitan zatituko da ordutegia eta sartuko den bakoitzak izango duen zerbitzuaren gutxieneko iraupena 30 minutukoa izango da; fakturatutako ordu edo zatik bakoitza benetan lan egindako denborari dago-kiola ulertuko da.

7.3) Arreta orduak.

Zerbitzuaren ordutegia malgua da eta 7:00etatik 22:00etara bitartean eskainiko da, hain zuzen.

Izaera mugatuarekin, zerbitzuaren ordutegia ezarritako ordu horietatik kanpo eskaini ahalko da, balorazio teknikoaren araber betiere.

– Laguntza pertsonaleko zerbitzuetan, udal teknikariak ezarriko du ordutegia, eskatzailearen ordutegietako ohiturak eta beharrak kontuan hartuta.

– Etxeko laguntza eta lagun egite sozialeko prestazioetan, udal teknikariak ezarriko du ordutegia, zerbitzua eskaintzen duen erakundearekin batera. Zerbitzua ematen duen langileak duen ordutegiaren arabera antolatuko da arreta emateko ordutegia.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILAK

8. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea.

Oro har, hona hemen zerbitzuaren erabiltzaileen profila: autonomia galtzearen ondorioz, edo ahultasun egoeran egotearen ondorioz, beren etxean bizitzen jarraitu ahal izateko, oinarritzko etxeko lanak egiten laguntza behar dutenak, bai aldi baterako laguntza bai laguntza iraunkorra.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan jasotakoaren arabera, etxez etxeko laguntza zerbitzua mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dauden pertsonen zuzenduta dago.

Horiez gain, etxez etxeko laguntza zerbitzua jaso ahal izango dute ondorengo pertsonak eta/edo familia-taldeak:

– Autonomia pertsonalerako zailtasunak dituzten pertsonak, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta/edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak.

– Adingabeak, beren familiek zaindu ezin dituztenean eta behar duten arreta eman ezin dituztenean.

– Honako familia talde edo pertsona hauek: zama gehiegi dutenak; harreman gatazkatsuek dituztenak; gizarte egoera ezegonkorrak dituztenak; eta/edo gaixotasun fisikoen eta/edo psikikoen ondorioz arazoak dituztenak. Horiek laguntza partziala edo erabatekoa behar dutenean eguneroko bizitzako edozein jarduera egiteko.

– Aldi baterako gaixotasun edo gaixotasun terminala duten pertsonak, eguneroko bizitzako jardueretarako hirugarren pertsona baten laguntza behar dutenean.

– Kasuaren ardura duenaren ustez eta iritziz arreta jaso beharra duten pertsonak eta/edo egoerak; horrelakoak Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak onartu beharko ditu.

Eskaera pertsona multzo batentzat egiten denean, multzo horretako kide guztiek bete beharko dituzte eskatutako baldintzak.

Nolanahi ere, onuradun guztiak ordeztan dituen zerbitzuaren titularrak izendatu behar da. Titular hori hiltzen bada, egoitzara bizitzera joaten bada edota beste etxe batera joaten bada, etxeko unitateko beste pertsona batek ordeztu ahal izango du.

Titularitasuna aldatzen denean, berriz ere balioztatuko dira beharrak, familiaren eta gizartearen aldetik egoera nahiz egoera ekonomikoa.

Las fracciones horarias se establecerán en divisiones no inferiores a 15 minutos y el tiempo mínimo de prestación del servicio para cada entrada será de 30 minutos, entendiéndose que cada hora o fracción facturada corresponde a tiempo de trabajo efectivo.

7.3) Horarios de atención.

El horario general del servicio es flexible y se desarrollará principalmente de 7:00 a 22:00 horas.

Con carácter limitado, se podrá ampliar el horario del servicio más allá de las horas establecidas, en función de la valoración técnica.

– En la prestación de apoyo personal, el personal técnico municipal establecerá el horario teniendo en cuenta las costumbres horarias y necesidades de la persona solicitante.

– En las prestaciones de apoyo doméstico y de acompañamiento social, el personal técnico municipal junto con la entidad prestataria del servicio establecerá los horarios en función de la disponibilidad horaria del personal que realiza los servicios.

CAPÍTULO II. DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 8. Determinación de las personas usuarias.

Con carácter general el perfil de las personas usuarias de este servicio se corresponderá con el de aquellas personas y/o grupos familiares que requieran, en razón de su pérdida de autonomía, o situación de vulnerabilidad, de la intervención temporal o permanente de un servicio de apoyo en las actividades básicas de la vida cotidiana para continuar residiendo en su domicilio habitual.

En el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales el servicio de ayuda a domicilio está dirigido, conforme establece el Decreto 185/2015, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, a las personas en situación de dependencia y a personas en riesgo de dependencia.

Además, podrán ser destinatarias del servicio de ayuda a domicilio las siguientes personas y/o grupos familiares:

– Personas con dificultades en la autonomía personal que requieran apoyo para su desempeño de las actividades básicas y/o instrumentales de la vida diaria.

– Menores de edad cuyas familias no puedan proporcionarles el cuidado y atención que requieren.

– Grupos familiares o personas con excesivas cargas, conflictos relacionales, situaciones sociales inestables y/o problemas derivados de enfermedad física y/o psíquica, con necesidad de apoyo y que requieren supervisión, ayuda parcial o total para el desempeño de cualquier actividad de vida diaria.

– Personas afectadas por una enfermedad temporal o terminal, que les obligue a precisar de la ayuda de una tercera persona para las actividades de la vida diaria.

– Todas aquellas personas y/o situaciones susceptibles de ser atendidas a juicio y criterio del responsable de caso, y autorizadas por la Dirección de Servicios Sociales, se valoren como susceptibles de recibir la atención desde este servicio.

Cuando la solicitud se realice para un colectivo de personas deberán cumplir los requisitos de acceso todas ellas.

Se designará una persona titular del servicio que represente a todas las personas beneficiarias que podrá ser modificado a favor de otra persona beneficiaria de la unidad convivencial cuando la persona titular fallezca, ingrese en un centro residencial o se traslade a otro domicilio.

El cambio de titularidad conllevará una nueva valoración de necesidades, situación sociofamiliar y situación económica.



Dokumentu hau egiazkoa dela  
07E2000153CD00A5N14G7J1S3  
kodearekin egiazta daiteke  
ondorengo Entitatearen Egoitza  
Elektronikoan

**SINATZAILA - DATA**  
IÑAKI XABIER GASTAÑARES SANCHEZ(P2005500J-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Idazkaria -  
21/09/2018  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2018  
08:18:49

EXPEDIENTE ::  
2018ORDE00002  
Data: 25/04/2018  
Ordua: 00:00  
Und. reg: REGISTRO  
GENERAL





**9. artikulua. Sartzeko baldintzak.**

Lehen esandako talde horietako batekoa izateaz gainera, eskatzaileak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

**9.1. Baldintza administratiboak:**

– Eskaera egingo den egunean, Legazpiko udalerrian erroldatuta egotea eta bertan erroldatuta jarraitzea. Proposamen teknikoaren arabera, baldintza hori betetzetik salbu egongo da familiako laguntza jasotzearen, hainbat udalerritako etxeetan txandaka bizi den pertsona.

**9.2. Premiako baldintzak:**

– Benetan etxebizitza horretan bizitzea, norbere etxea izan edo zaintzaile nagusia den familiako kidearen etxea izan.

– Erabiltzaileari bertan bizitzen jarraitzea eragozten edo zailtzen ez dion egoera batean dagoen eta erabiltzailearentzat berarentzat eta etxetzeko langileentzat arriskurik ez dakarren bizileku bat izatea.

– Beharrezkoa izanez gero, Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prestazioarekin batera bizilekuan baldintza egokietan jarraitzeko babes nahikoak izatea.

– Osasun-erakundeetako edo erakunde soziosanitarioetako laguntza jarraitua eskatzen duen osasun-egoera bat ez izatea.

– Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat edo gaixotasun mental bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.

– Jokabide-nahasterik ez izatea, edota etxetzeko langileentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.

**10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.**

